



LITTORAL BASQUE
EUSKAL ITSASBAZTERRA

ORDENAGAILUZ LAGUNDUKO MUSIKA

TAILERAK : MUSIKA-SOINU SORKUNTZA

14, 15, 16 edo 17 urte dituzu ?

Zure musika pertsonalaren ekoizle bilaka zaitetz !

Eskolako oporraldietan, lau tailer proposatzen dizkizuegu. Hiru arratsalde, segidan. Izadian, parabola bati esker, zure belarriekin erne izanez geroztik, naturaren soinuak grabatuko dituzu. Gero, studio batean, zeure « soinu bankuari esker » zure musika pertsonala ekoiztuko duzu, ordenagailuz lagundurik...

* **Noiz** :
Neguko oporrak : Martxoaren lehenetik hirua arte
Udaberriko oporrak : Apirilaren 19tik 21arte
Udako oporrak : Uztailaren 19tik-21arte
Agorilaren 9tik 11arte

*Sustrai komun ukan arren, tailer bakotsak bere independentzia du.
Hori dela eta, posible da tailer batean bakarrik parte hartzea edo tailer guztietan parte hartzea.*

* **Norentzat** :

Gazteentzat : 14 urteetatik 17 urte arte. Musika menperatzea ez da batere beharrezkoa. Parte hartzeko, tresna berezirik ez duzu ekarri behar. Abbadiako eremuan, material guztia ukanen duzu eta. Tailer guztiak euskaraz eginen dugu. Hori dela eta, beharrezkoa da euskara menperatzea.

* **Norekin** :

Euskal animatzaileak :

- Jean-Marc HALSOUET (XANO) musikaria, konposatzailea. King Mafrundi taldearekin aritua, BED (Basque Electronic Diaspora), Lokarri filmearen musika konposatzaile
- Erik DICHARRY, antropologo eta Abbadiako eremuaren euskal animatzaile.

* **Nun** :

Grabaketak, babestua den Abbadiako eremuan, Hendaian eginen ditugu. Studio lanak, "Nekatoenea" deitzen den etxean egingo ditugu.

CENTRE PERMANENT D'INITIATIVES POUR L'ENVIRONNEMENT
INGURUMEN ALDEKO EKIMEN ZENTRO IRAUNKORRA



LITTORAL BASQUE
EUSKAL ITSASBAZTERRA

* **Zertarako** :

Helburu nagusia : por onak pasatzeko musika eta natura lagundurik.

Abbadia eremua eta Abbadia jauregia sorkuntza askatzeko leku aproposak dira. Xano musikalaria eta Erik antropologoa, lagunduko zaitugu zeure CDa ekoizteko.

Gurekin, giro on baten bidez, bakantza onak eta baliotsuak pasatuko dituzu. Gurekin ikasiko duzu :

- 1) soinuak nola grabatzen diren
- 2) soinuak nola ordenagailu batean sartzen diren
- 3) musika ordenagailuak lagundurik nola sortzen den
- 4) zuen belarrieri esker natura (itsasoa, eremuko abereak eta txoriak...) nola deskubritzen den
- 5) natura nola grabatzen den
- 6) soinuek zein esanahia duten
- 7) soinuak nola erabiltzen diren

Tailerari ondorren, **zuk ere egiazko musika egile bihurtuko zara. Tailerari esker zure musika bestekin, interneten bidez, my spacen bidez adibidez partekatuko duzu.**

* **Prezioa** :

30 Euro / tailer batentako (hiru egun erdiko tailerak dira, hasten dira arratsaldeko 2etan eta bukatzen dira arratsaldeko 5etan)

* **Xehetasunak** :

Izen ematea (erreserbazioa beharrezkoa da, tokiak murriztuak dira eta, 7 leku bakarrik baitaude) : lehenbailehen deitu telefono zenbaki honetarat 05.59.20.37.20 edo bidalizazu email bat helbide honetarat : abbadia@hendaye.com

IZEN EMATEA BEHARREZKOA DA ~ Prezioa : 30 € tailer batentako (hiru arratsalez segidan)

..... ↘ **XEHETASUNAK ETA ERRESERBAZIOAK** ↙

XEHETASUNAK+ :

Erik DICHARRY cpielittoralbasque.patrimoine@hendaye.com

IZEN EMAITEAK :

Deien arabera hartuak dira : 05.59.20.37.20 edo : abbadia@hendaye.com

CENTRE PERMANENT D'INITIATIVES POUR L'ENVIRONNEMENT
INGURUMEN ALDEKO EKIMEN ZENTRO IRAUNKORRA

www.cpie-littoral-basque.eu – cpie.littoral.basque@hendaye.com

Amis d'Abbadia / Abbadia Adixkideak - "Larretxea" - 64700 Hendaye / Hendaia - Tél. 05.59.20.37.20 - Fax : 05.59.20.54.20
Association loi 1901, agréée Jeunesse et Education Populaire sous le n° 64.0730 - N° SIREN : 381.899.780.00013-9103Z